

KANALAK

Atal honetan, gure bezero edo segmentuekin komunikatzeko erabiliko ditugun baliabideak, komunikazio kanalak, alegia, gure panpinen banaketa eta salmenta kanalak, azalduko ditugu.

Lehenik, komunikazio kanalak azaldu eta zehaztuko ditugu. Gure ondasunaren ezagutza zabaltzeko, baliabide digitalak erabiliko ditugu gehienbat, sare sozialek izugarrizko influentzia eta komunikazio boterea hartu dutelako azken urteetan. Tik Tok eta Instagram aplikazioetan *Lera Style* izenpean profil bat irekiko dugu, eta bertan, gure produktuaren inguruko berriak, gizartean dagoen arazo sozial honi buruzko salaketa... egingo ditugu, eta gure enpresaren hedepena zabaltzeko, influenzerrekin ere lan egingo dugu, gure produktua promozionatu dezaten. Eta, horrez gain, gure bezeroak gurekin komunikatzeko kanala izango dira sare sozialak. Gure bideo, publikazio, argazki eta abarretan iruzkinak bidali ahalko dizkigute erabiltzaileek eta mezu pribatuak ere jasoko ditugu.

Sare sozialez gain, beste baliabide digital batzuk ere erabiliko ditugu, hala nola telebistako iragarkietan, alde batetik, haurrek ikusten dituzten telebista kateetan, hala nola, Espainian, *Disney*, *Boing*, *Clan*, *Nickelodeon*, *ETB1* eta *ETB3*, eta Ameriketako Estatu Batuetan berriz, *Cartoon Network*, *E Junior*, *Disney Channel* eta *BBC Kids* izango dira gure enpresaren publizitatea zabaltzeko erabiliko ditugun kateak. Bestetik, gurasoek ikusten dituzten kateetan, Espainiari dagokionez, *RTVE*, *Telecinco*, *ETB1* eta *ETB2n*, aldiz, Ameriketako Estatu Batuetan, *ABC*, *FOX* eta *NBCn* iragarkiak jarriko ditugu, horrela, panpinak existitzen direnaren berri izateaz gain, gure ideia eta ikuspuntua ere zabalduko dugu.

Panpinak salduko diren hainbat denden katalogoetan ere egongo da ikusgai gure produktua, denda hauek ere gure panpinak publizitatuko dituztelako. Gure enpresak webgune bat ere edukiko du, baina honen bidez ezin izango da ezer erosi, katalogo gisa eta iradozkizunak bidaltzeko funtzionatuko du soilik. Bertan, erosleek salmentan ditugun panpinak eta zein dendatan erosi ahal dituzten ikusiko dute. Gure



ustez kanal hau oso garrantzitsua izan daiteke, gure enpresarentzat funtsezkoa baita publikoaren iritzia jasotzea, pixkanaka hobetuz joateko.

Gure salmenta kanalekin jarraituz, gure enpresak ez du edukiko denda propiorik, ez fisiko ezta digitalik ere, beraz, bitartekarien bidez, salmenta zeharkakoa izango da. Gure panpinak jostailu denda handietan egongo dira eskuragarri, hala nola, *Afede, Toys R Us, Juguetos, Toy Planet eta Carrefour* Espainian. AEBn, berriz, *Walmart, Target, FAO schwarz, Toys R Us eta Toy Planet*. Aliantza hauek zehaztuta daude funtsezko elkarleen atalean. Salmenta kanal mota hau aukeratu dugu, gure enpresa jende gehiagorengana iristeko helburuarekin, gure denda propioarekin hasiko bagina, *Lera Style* proiektura iristea zailagoa izango litzatekelako publikoarentzat.

Azkenik, gure banaketa kanala definituko dugu. Gure panpinak Espainian eta Ameriketako Estatu Batuetetan saltzeko, *DHL* garraio enpresa erabiliko dugu. Gure produktuak fabrikatik zuzenean bidaliko dira *DHL*ren bidez jostailu denda handietara. *DHL* aukeratu dugu, nazioarteko bidalketetan esperientzia handia duelako eta bidalketak azkar eta modu egokian egiten dituelako. Horrela, gure panpinak egoera onean eta garaiz iritsiko dira bai Espainiara bai AEBetara.

